

**2008ko UZTAILAREN 3an LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN  
OSPATUTAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2008ko uztailaren 3an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, gaueko 20.30 orduetan, Xabier Mujika alkatearen lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ALKATEA: Xabier Mujika Pagola

ZINEGOTZIAK: Adela Mendiola Gomez  
Iñigo Aginalde Lertxundi  
Karlos Irazu Muñoa  
Igor Barandiaran Perez de Arriluzea

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

...//...

Alkate-lehendakari jaunak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

1. Ondoren adierazten den Udalbatzarreko akta onestu, hala badagokio:
  - 2008ko ekainaren 5ean ospatutako ohiko bilkura.
2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.
3. B. XX-D etxe aurrean (partzela pribatua)itxitura bat egiteko baimena eskaera. A. A..
4. B. XX-ezk. etxe aurrean (partzela pribatua)itxitura bat egiteko baimena eskaera. L. M. T..
5. A. baserri ondoko terrenora ur sare orokorretik toma bat hartzeko baimena eskaera. K. J..
6. Larraulgo Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 3.1. exekuzio unitateko urbanizazioa obrak bermatzeko jarritako fidantza bueltatzeko eskaera. Pabeopin S.L.
7. Aiztondo Mankomunitateari 2008 urteko 2. Hiruhilabetearen ordainketa, hala bada.
8. Fakturak eta ordainketak.
9. Beste batzuk.
10. Erregu, galderak eta mozioak.

.../...

**LEHENENGO PUNTUA**

**ONDOREN AIPATZEN DEN UDALBATZAREN AKTA ONESTU, HALA BADAGAKIO.**

- ▣ 2008 urteko ekainaren 5ko Ohiko Udalbatzaren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

**BIGARREN PUNTUA**

**ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Alkate jaunak azkeneko Udalbatzarretik emandako ebazpenen berri ematen du:

12/2008 Alkatetza Ebazpena, ekainaren 20koa, Etxe-Berri fatxada eta aleroak margotzeko baimena ematea ebazten duena.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.

**HIRUGARREN PUNTUA**

**B. XX-D ETXE AURREAN (partzela pribatua) ITXITURA BAT EGITEKO BAIMENA ESKAERA. A. A.**

Ikusirik A. A. jaunak eginiko eskaera, non B. XX-D etxe aurrean (partzela pribatua) itxitura bat egiteko baimena eskaera egiten duen.

Ikusirik 2008ko uztailaren 2an Udal Teknikari aholkulariak eginiko txostenean dioena:

*“A. A. jaunak, Larraulgo B. XX etxearen aurrealdean duen lursail pribatu harrizko paretaz batez ixteko baimena eskatzen du, egin beharreko lanen aurrekontua aurkezten dutelarik. Aurreko dokumentazioa ikusirik, ZERA ADIERAZTEN DUT:*

*Eskarian eta aurrekontuan, itxitura harrizko paretaz eta burdinazko ate eta hesiz osatua egongo dela esaten da. Itxitura barruan gelditzen den lurra pribatua da.*

*B. XX etxea, Larraulgo lur-hiritargarran kokatua dago, bereziki araudiaren a.10.3.1/2 partzelan.*

*Bai Larraulgo U.E.3.1 fitxak eta bai Irisgarritasunaren baldintzei buruzko apirilaren 11-ko 68/2000 dekretuko II eranskinaren 3º artikulua, oinezkoen pasaguneek 2,00-tako zabalera izango dutela esaten dute.*

*Larraulgo araudiak, partzelen itxiturei buruz honela dio:*

*Artículo 38.-Cierres de parcela.*

*Los cierres de las parcelas privadas se realizarán con muretes de mampostería de piedra de altura no superior a un metro o por medio de elementos vegetales con altura no superior a 1,50 mts.*

*Los cierres provisionales a base de estacas de madera y alambre no tendrán una altura superior a 1,20 mts.*

*Los espacios ajardinados privados que surjan en las parcelas deberán recibir tratamiento de jardinería al menos en un 50% de su superficie.*

*Beraz, harrizko hormak 1m-ko gehieneko altuera eta ondoko partzelaren itxituraren itxura berdina izango du eta burdinazko ateak eta hesiak ere, a.10.3.1/3 partzelaren antzekoak izango dira.*

*Itxitura egin ondoren gelditzen den oinezkoen espaloiareneko gutxieneko zabalera 2,00 m-koa bada eta itxiturak aurreko baldintzak betetzen baditu, egokia izango da udal baimena ematea.”*

Gaia aztertu ondoren, bertaratuek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA: A. A. jaunak eginiko eskaera, hau da, B. XX etxearen aurrealdean duen lursail pribatuan harrizko pareta batez ixteko eskaera onestea, betiere Udal Aholkulari Teknikoa den E. E. Arkitektuak eginiko txostenean jasotako baldintzak betetzen baditu.

BIGARRENA: Indarrean dauden Ordenantza Fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri intesdunari ematea.

**LAUGARREN PUNTUA**

**B. XX-D ETXE AURREAN (partzela pribatua) ITXITURA BAT EGITEKO BAIMENA ESKAERA. L. M. T.**

Ikusirik L. M. T. jaunak eginiko eskaera, non B. XX-ek. etxe aurrean (partzela pribatua) itxitura bat egiteko baimena eskaera egiten duen.

Ikusirik 2008ko uztailaren 2an Udal Teknikari aholkulariak eginiko txostenean dioena:

*“L. M. T. jaunak, Larraulgo B. XX etxearen aurrealdean duen lursail pribatu harrizko pareta batez ixteko baimena eskatzen du, egin beharreko lanen aurrekontua aurkezten dutelarik. Aurreko dokumentazioa ikusirik, ZERA ADIERAZTEN DUT:*

*Eskarian eta aurrekontuan, itxitura harrizko paretaz eta burdinazko ate eta hesiz osatua egongo dela esaten da. Itxitura barruan gelditzen den lurra pribatua da.*

*B. XX etxea, Larraulgo lur-hiritargarran kokatua dago, bereziki araudiaren a.10.3.1/2 partzelan.*

*Bai Larraulgo U.E.3.1 fitxak eta bai Irisgarritasunaren baldintzei buruzko apirilaren 11-ko 68/2000 dekretuko II eranskinaren 3º artikulua, oinezkoen pasaguneek 2,00-tako zabalera izango dutela esaten dute.*

*Larraulgo araudiak, partzelen itxiturei buruz honela dio:*

*Artículo 38.-Cierres de parcela.*

*Los cierres de las parcelas privadas se realizarán con muretes de mampostería de piedra de altura no superior a un metro o por medio de elementos vegetales con altura no superior a 1,50 mts.*

*Los cierres provisionales a base de estacas de madera y alambre no tendrán una altura superior a 1,20 mts.*

*Los espacios ajardinados privados que surjan en las parcelas deberán recibir tratamiento de jardinería al menos en un 50% de su superficie.*

*Beraz, harrizko hormak 1m-ko gehienezko altuera eta ondoko partzelaren itxituraren itxura berdina izango du eta burdinazko ateak eta hesiak ere, a.10.3.1/3 partzelaren antzekoak izango dira.*

*Itxitura egin ondoren gelditzen den oinezkoen espaloia gutxienezko zabalera 2,00 m-koa bada eta itxiturak aurreko baldintzak betetzen baditu, egokia izango da udal baimena ematea.”*

Gaia aztertu ondoren, bertaratuek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA: L. M. T. jaunak eginiko eskaera, hau da, B. XX etxearen aurrealdean duen lursail pribatuan harrizko pareta batez ixteko eskaera onestea, betiere Udal Aholkulari Teknikoa den E. E. Arkitektuak eginiko txostenean jasotako baldintzak betetzen baditu.

BIGARRENA: Indarrean dauden Ordenantza Fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri intesdunari ematea.

### **BOSTGARREN PUNTUA**

#### **A. BASERRI ONDOKO TERRENORA UR SARE OROKORRETIK TOMA BAT HARTZEKO BAIMENA ESKAERA. K. J.**

Ikusirik K. J. S. jaunak eginiko eskaera, non azaltzen duen A. baserri ondoko terrenoan borda bat egiten ari dela eta ur sare orokorretik toma bat hartu eta bordaraino ur hodi bat eraman nahi duela, bide batez, borda ondoko terrenora, hau da, J. T. jaunaren partzelan toma bat utzi nahi duela, horretarako beharrezkoa den baimena eskatuaz.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: K. J. S. jaunak eginiko eskaerak onestu.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesdunari ematea.

### **SEIGARREN PUNTUA**

#### **LARRAULGO PLANEAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO 3.1. EXEKUZIO UNITATEKO URBANIZAZIOAREN OBRAK BERMATZEKO JARRITAKO FIDANTZA BUELATZEKO ESKAERA. PABEOPIN S.L.**

Ikusirik 2008ko otsailaren 25ean J. L. O. Z. jaunak, PABEOPIN S.L. ren izenean, Larraulgo Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 3.1. exekuzio unitateko urbanizazio lanak egoki bermatzeko jarritako 36.403,41 eurotako fidantzaren itzulera eskaera aurkeztu duela.

Ikusirik 2008ko maiatzaren 8an egindako Udalbatzarrean erabaki zela, J. L. O. Z. jaunak eginiko eskaera, jendaurrean jartzea, G.A.O. argitaratuz, eskatzailearengan eskubideren bat izan dezaketen guztiek, erreklamazioak aurkez ditzazten.

Ikusirik 2008ko maiatzaren 28ko G.A.O. an argitaratu zela PABEOPIN S.L. baltzuak eskaturiko Larraulgo Arau Subsidiarioetako 3.1. exekuzio unitateko urbanizazio lanak egoki bermatzeko jarri zuen behin betiko fidantza itzuleraren eskaera, hamabost egunetan jendaurrean egonik inolako erreklamaziorik egon ez delarik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: J. L. O. Z. jaunari, PABEOPIN S.L. ren izenean eskaturiko Larraulgo Arau Subsidiarioetako 3.1. exekuzio unitateko urbanizazio lanak egoki bermatzeko jarri zuen fidantza, hau da, 36.403,41 euro (dirutan jarritakoa) bueltatzea.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesdunari ematea.

**ZAZPIGARREN PUNTUA**

**AIZTONDO MANKOMUNITATEARI 2008 URTEKO 2.  
HIRUHILABETEAREN ORDAINKETA, HALA BADA**

Ikusirik 2008 urteko ekainaren 23an Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitetik igorritako idatzia, non Larraulgo Udalarari 2008 ekitaldiko 1.go hiruhilabeteari dagokion erregularizazioa eta 2. hiruhilabeteako ekarpena, guztira 4.156,30 eurotakoa, burutzeko eskaera luzatzen zaion.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateari 4.156,30 eurotako diru ekarpena egitea, 2008 ekitaldiko 1.go hiruhilabeteari dagokion erregularizazioa eta 2 hiruhilabeteako diru ekarpenaren kontzeptupean.

BIGARRENA.- 4.156,30 eurotako gastua onestea.

**ZORTZIGARREN PUNTUA**

**FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Alkate-Lehendakari jaunak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

SULAR	2.112,28
GALPARSORO	113,80
LAVANDERIA LIZARRA	82,94
LEX NOVA	54,08
GIPUZKOAKO ALDIZKARI OFIZIALA	26,25
JUAN LUIS OTAEGUI	400,20
URBELTZ AUZOKO JABEEN KOMUNITATEA	30,00
MANPEL	85,55

GIPUZKOAKO URAK	4.832,15
IBERDROLA	227,66
EUSKALTEL	120,60
TELEFONICA	29,74
TELEFONICA	92,51
TELEFONICA	16,21
TELEFONICA	21,05
IBERDROLA	77,17
IBERDROLA	31,11
IBERDROLA	120,63
IBERDROLA	168,65
IBERDROLA	150,79
IBERDROLA	31,19
IBERDROLA	195,29
IBERDROLA	66,40
EUSKO IKASKUNTZA	9,74
BABESA SUZAI, SA.	60,90

Udalbatzarrak **ahobatez** hurrengoa,

#### ERABAKITZEN DU

LEHENGOA.- Aipaturiko fakturak, denera **9.330,89** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

#### **BEDERATZIGARREN PUNTUA** **BESTE BATZUK**

##### **9.1. AUZOLAN PROGRAMA**

Ikusirik Tolosaldea Garatzenetik jasotako idatzia, non azaltzen duen Auzolan programa abian hasiko dela datorren irailean, beraz Larraulgo Udalak interesa eduki ezker bide baztarren garbiketari, aipaturiko programa honetan parte hartzeko eskaera egin behar duela.

Ikusirik Larraulgo Udala interesatua dagoela, bide baztarren garbiketa egiteko Auzolan programaren bidez.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Tolosaldea Garatzen –i jakinaraztea Larraulgo Udala prest dagoela Auzolan programan parte hartzeko.

## **HAMARGARREN PUNTUA** **ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**

Onddolar Plataformak aurkezturiko mozioa irakurtzen da, ondorengo diolarik:

*“Gure helburuen artean dago ingurumena, LARRAUL (e)ko herritarren osasuna eta beren ingurunea errespetatzen laguntzea.*

*San Markos eta Debagoieneko mankomunitateek egindako gonbidapenari esker Katalunia eta Mallorcara egindako bisitaren ondoren egiaztatu ahal izan dugunez, eraginkorra da ATEZ ATEKO bilketa, izan ere, bilketa-sistema horren alde egin duten udalerrietan, % 65-70era-eta batzuetan % 80ra- iritsi da birziklatutako etxeko hondakinen eta HPIME izenarekin ezagutzen direnen ehunekoa, % 15-20ko zenbatekoetatik abiatuta. Gainera, hondakinek % 5 eta 15 artean egin dute behera toki horietan.*

*Neurri horiek guztiak hondakinei buruzko Kataluniako legea bezalako arau-esparru bati zor zaizkio, besteak beste ( 15/2003 Legea, ekainaren 13koa, hondakinak arautzen dituen).*

*Maila guztietan-Europar Batasunean 8 hondakinei buruz zuzentzarauak), Estatuan (Hiru Hondakinei buruzko Plan Nazionala), Euskal Autonomia Erkidegoan (hondakinei buruzko norabideak), Gipuzkoan (Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorra) eta mankomunitateetan ( Plan integral edo estrategikoak)- hondakinen esparruan ezarritako lehentasunei erreparatzen badiegu, ikusiko dugu atez ateko bilketaren bidez guztietan ezarritako helburuak lortu ahal izango ditugula, hala nola, hondakinen kopurua eta arriskua murriztea, zati guztiak gaika biltzea edo berrerabiltzearen eta birziklatzearen ehunekoek gora egitea.*

*Hortaz, honakoa ESKATZEN DUT:*

*1.Hurrengo UDALBATZAN aurkezteko eta bertan onartzeko atez ateko metodoa ezartzeko premia, eta bereziki, LARRAUL udalerriko materia organikoaren bilketa, etxeko hondakinei dagokionez nahiz HPIME izenarekin ezagutzen direnei dagokionez.*

*2.Hurrengo UDALBATZAN aurkezteko eta bertan onartzeko eskumena duten administrazio- eta politika-organoei ( Eusko Legebiltzarrari) egindako berariazko eskaera, benetan aitzindari izango den legea onartzeko, Kataluniako Autonomia Erkidegoan hondakinen esparruan dutenaren parekoa, honakoa baitio Kataluniako lege horrek: “ Udalerrietako hondakinen gaikako bilketak nahitaezkoa izan behar du, hondakin organikoak biltzeko zerbitzuari gaika entregatzeari dagokionez.”*

Mozioaren edukia aztertu ondoren, Udalbatzak aho batez ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Onddolar Plataformak aurkezturiko mozioa ez onartzea.

BIGARRENA: Onddolar Plataformari jakinaraztea Larraulgo Udala, Tolosaldeko Mankomunitatean sarturik dagoela, zabor bilketari dagokionez, gainera Gipuzkoa mailan Kontsortzioa dagoela, horregatik horrelako erabakiak bertan hartu beharko direla.

HIRUGARRENA: Onddolar Plataformari erabaki honen berri ematea.

*Beste gairik ez dagoenez, gaueko 21.40 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.*

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA